

KOLDO AMESTOY

kondalaritzan

Koldo Amestoy 1983an hasi zen ipuin kondalaritzan, bide profesionalan. Bere gaia bere herria da: ipuinaldietan agertzen dizuna, euskal kultura, hitz, kantu edo birpiztutako irudien bitartez dastatzera ematen dizuna,... Sorkuntza propioak, euskal mitologiako elementuak, ipuin eta kontakizun herrikoiak, guzti honek osatzen du bere errepertorioa. Ipuin ikuskizun ugari agertu eta eskaini dizkie haur eta helduei, Euskal Herrian zehar: Ibartxola, Urdinola, Makilargi, Harriola Marriola.

Ipuina eta musika oso loturik egon dira Koldoren ikuskizunetan. Asko dira, musika, kantua, olerkiak ..., lotura zuzena izan duten ikuskizunak. Oskorri, Pantxix Bidart eta Xanpunekin lan egin du beste askoren artean.

Antzerki zuzendari bezala aritu da Nun banka, han kalaka eta Menditarrak obretan hain zuzen ere. Hainbat komunikabidetan ere aritua da, telebistan eta irratian euskarazko emankizun batzuetan ekoizle eta tartekako kolaboratzaile moduan.

Hazparne eta inguruetako ipuin festibalaren sortzailea eta aholkularia izan da. Suitzan eta Belgikan behin baino gehiagotan aritu da zenbait festibaletan, baita Afrikan eta Quebecen ere. Behin Bazen diskoa ere argitaratu zuen, Bixente Martinezekin eta Oskorriko kantari eta musikariek lagundurik.